

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA ♦



DANI BLANCO

Hizkuntzak eragile instituzionala behar du

IPAR EUSKAL HERRIKO Lurralde Kontratua prestatzeko, euskara lan taldeak hizkuntza biziberritzeko urrats kualitatiboan nahiz kuantitatiboan baldintzak definitu zituen 2014an. Ondorioz, Hautetsien Kontseiluak instituzio guztiei euskararen aldeko pakto bat adostea proposatu zien elkarrekin jokatzeko hiru lehentasuni begira:

- Frantziako Hezkunde Nazionalarekin negoziaketa burutzea, irakaskuntza eskaintza garatzeko.
- Helduen formakuntza profesionala diruztatzeko fondo komuna sortzea.
- EEPren urteko aurrekontua bikoiztea.

Urte eta erdi berantago, euskalgintzako herri mugimenduek lobby lan azkarra eginik ere, argi da helburua ez dela lortuko. Emaizta horietan buruzagi politiko bakoitzaren ardurak eta erantzukizunak ukatu gabe, huts egite horrek agerian uzten du Iparraldeko instituzio baten eskasia. Alabaina, politika emankorrak zutik ezartzeko arduradun politikoen borondatea ezinbesteko izanik ere, haren hezurmamitzeko tresna instituzionalik gabe ez da nahikoa. Tresna hori ukan gabe, nekez bidera daiteke hizkuntza politikak behar duen oldar berria. Nekez konbentzitu eta aurrera erakarriko dira hizkuntza politikan esku-hartze ekonomikoa duten gainerako instituzio mailak, Estatu-

Heldu den udaberrian Iparraldeko herriko kontseiluen bozketaren ondotik sortu daitekeen herri elkargo bakarrak mirakulurik egingen duenik nehork ez du uste

tik departamendura. Nekez sortuko da Hezkunde Nazionalarekin behar diren akordioak lotzeko indar harreman nahikoa. Nekez orokortuko da euskararen irakaskuntza normaltasun osoz, haur guztiei 10 urte barne eskaini beharko dieguna. Hots, Iparraldean euskararen egoerari buru egiteko hizkuntza politikak lurraldeko eragile instituzional indartsua behar du.

Heldu den udaberrian Iparraldeko herriko kontseiluen bozketaren ondotik sortu daitekeen Herri Elkargo bakarrak mirakulurik egingen duenik nehork ez du uste. Berez mugatua izanen baita, eskumen, aurrekontu eta funtzionamenduaren aldetik. Estatuko austeritate politikak beste erakunde publikoak bezala jasan beharko baititu. Horren giderrak hartuko dituzten buruzagiak ez baitira, behar bada, aski konbentzituak eta ausartak izanen, behar diren neurriak hartzeko edota lehentasunak definitzeko momentuan eztabaida politiko biziak izanen baitira. Luza daiteke ahulezien zerrenda, baina segur dena da lehen aldikoz, Iparraldearen izenean mintzatu eta aritzeko eragile politikak instituzionala izanen dela. Ondorioz, hizkuntza alorrean definituak diren lehentasunak eta adostuak diren bide orriak gauzatzeko orain baino aukera askoz gehiago izanen dira. ■

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Oroitzuz

URRIA ERDITSUTAN eman zuen azken hatsa. Adiskideak ginen, aspalditik. Eritasun tzar batek beste mundura eraman zuen, garaizegi: ehunka kidek –Agergarai-Olaso, Berzaitz eta Bedaxagar sendiez gain, Euskal Herrian zehar askok– dolu dute gaur Dominika Agergarai ez dutelako gehiago Zuberoako xendretan gurutzatuko.

Badira jendeak, horrela, ez direnak sekula zinkurinaz eta auhenez entzuten. Umoreari eta arrailerari esker gaingiditzen dituzte zailtasunak eta saihetsean dauzkatenei are urrunago tematzeko kemena txertatzen diete. Alde horretatik Dominikak ez zuen paretik: zirtot-

ak, bertsoak, gogoeta sakonak, kanta zaharrak eta berriak, azterketak, hitzak beraien zabalerarik eskuzabalenean erabiltzen zituen, biolentziari halatan bidea zerratuz.

Ingurua pozez josiaz, Zuberoako laborantza eta kultura alorrean sartu zuen atzamarra: Habia elkarteko lehendakari izan zen, Urdiñarbeko Musika Egunaren sortzaile, Muskildiko pastoraletan arizale, maskaradetan buhameen prediku idazle eta hondar urteotan, Azkorri ardi-gazta kooperatibaren eraikitzaile.

Saltsa zaporetsu guztietako zalia zen. Umezurtz utzi gaitu. ■